

3 GURASOEN ETA NERABEEN AISIALDIRAKO ESKAERA

Hemen abiatzen den atalean, izenburuak dioen bezala, aisialdiarekiko eskaera aztertu dugu eta azterketa horren ondorioak edo klabeak agertuko ditugu. Aisialdiari eskatzen zaiona jorratzerakoan, aisialdiaz berataz egun dauden pentsamoldeak, baloreak eta sentitutako beharrak azaleratzeko saiakera izan da gurea. Argi baitago, aisia eta aisiarako denbora ulertzeko erak aisiari eskatzen zaion horretan eragina baduela; bide beretik, pertsonen baloreak, edo balioa zeri ematen dioten jakiteak, aisialdiaz espero dutena eta jaso nahi dutena ulertzen lagunduko digu. Pentsamolde zein baloreetatik eratoritzen da, neurri handi batean, aisialdian asebate nahiko liratekeen beharrak, eta ezinbestekoa iruditzen zaigu behar horiek arakatzea aisialdi hezitzailearen egoera aztertzea izanik ikerketa honen helburua.

3.1. AISIALDIAREKIKO PENTSAMOLDEAK, BALOREAK ETA BEHARRAK

3.1.1. Aisialdiarekiko pentsamoldeak

Aisialdiarekiko pentsamoldeak edota aisialdia ulertzeko eraz jakin nahian, haur edo gaztetxo direnen gurasoenak ezagutzeko ahalegina egin dugu.

Zerbait egin gutxiago ez izateko. Haur eta gaztetxoen aisialdiaz ari direnean, berehalakoan agerian utzi dute umeak denbora librean ezer ez egitea, nolabait, gutxiago izatearekin parekatzen dutela. Gure ustez, azpimarratzeko moduko kontzeptuak ditugu esaldi horretan. Alde batetik, “ezer ez egitea” diotenean gurasoek, argi utzi behar da antolatua ez den aisialdia edukitzeaz ari direla, hau da, beraien ustez ez du ezer egiten programatuta dagoen jardueraren batera ez doanak. “Ezer

ez egite" horren barnean neurri kontua ere badago; horrela, astean zehar bi jardueratan izena emanda duen haurrak, litekeena da, zenbait gurasoren ustetan haur horrek "ezer ez egitea", beraien umea bost ekintzatan ari delako. Edozelan ere, "ezer ez egitea" eskolatik aparteko orduetan antolatutako jardueretan parterik ez hartzea bezala ulertzen dute.

Baieztapenean jasotzen dena argitu nahian, "ezer ez egitea" eta "gutxiago izatea" parekatzerakoan, "gutxiago izate" horrek bi esanahi jasotzen ditu bere baitan. Alde batetik, gutxiago izatea diotenean, sozioekonomikoki gutxiago izatearen pentsaera adierazten dute. Zera, umeak denbora librean jarduera antolatueta ez ari-tzeak, bere familiaren maila sozioekonomiko baxuaren adierazle bezala barnera-tzen dute. Gizartearen aurrean umearen aisiarako denboraren antolaketak bere fa-miliaren maila sozioekonomikoa proiektatzen du. Hartara, gurasoek beraien seme-alabek honetan edo hartan aritzea nahi dute.

Bestalde, "gutxiago izatea" diotenean haur edo gaztetxoak daukate pen-tsamenduan, gaztetxo horren etorkizuna, zehatzago esanda. Gurasoen artean oso zabaldua dagoen pentsaera da, beraien seme-alaben etorkizuna lantzeko bide bat aisialdian kokatzen dela; hau da, uste dute, eskolaz kanpo jorratzen duten hark, etorkizun oparoagoa izaten lagunduko dietela. Horregatik, zenbat eta jarduera gehiago, batez ere, kutsu akademikoa duten zenbat eta jarduera gehiago eskaini gaztetxoari, orduan eta mesede gehiago egiten diotelakoan daude gurasoak, hau da, etorkizunean ate gehiago izango dituztela horrela egi-nez gero.

Hona arte azaldutako pentsamoldea laburtzeko era bat izan daiteke esa-tea, gurasoen pentsamendua dela, haur edo gaztetxoak bere aisialdian hau eta hura egiten aritzeak, nor izan badirela (familiaz) eta izango direla (beraiek etor-kizunean).

Telebista aurreko orduak saihestu. Haur eta gaztetxoaren aisialdiarekiko gura-soek dituzten pentsamendutan murgiltzen jarraituz, ia guraso guztien ahoetatik en-tzun ahal izan ditugu saihestu nahiko lituzketen bi gertakari. Guraso bezala ardu-ratu egiten dira haur eta gaztetxoek telebista aurrean pasa dezaketen denbora amaigabea dela konturatzen direnean. Denboraz gain, telebista aurreko jarrera zein pasiboa eta inaktiboa (ia hipnosi itxurakoa) den ikusita kezkatzen dira gehien. Te-lebista ikusiz beraien seme-alabek ezer onik ez dutela jasoko pentsatzen dute; hain justu horretarako, telebista aurreko gelditasuna saihesteko bakarrik bada ere, ai-sialdian bestelako jardueretan aritzea ontzat jotzen dute. Telebistatik urruntzeko bi-deak eman nahi dizkiete beraien seme-alabei.

Kalean ibiltzea arriskuan ibiltzearen pareko. Telebista ikusten egotea ba-tere onuragarri ez dela pentsatzen duten bezala, eta horrexegatik, saihestu be-harrekkoa, beraien seme-alabak "kalean ibiltzea" ere ez dute ondo ikusten. Seme-alabak kalean ibiltzea, nolabaiteko arriskuan egotea bezala bizi dute gurasoek. Hor zehar ibiltzea, non edo zertan den jakin gabe ez da gurasoen gustuko.

Ziurtasunik eza sortzen die beraiei, seme-alabak non dabilzan ez jakiteak, arriskupean egon litezkeela sentitzen baitute. Era ezberdineko arriskuak dituzte aipagai "kalean ibiltzeaz" hitz egiten dutenean. Alde batetik, ikuspegi urbanistikotik ulertuta, kalea trafikoarekin erlazionatzen dute, eta trafikotik babestutako gu-neak aurkitzea zaila denez, beraien seme-alabek istripuren bat izan dezaketela datorkie burura; kotxe istripuetaz gain, bestelako istripuen arriskuak ere irudikatzen dituzte.

Bestalde, kaleak ziurtasunik eza sorrarazten dien beste pentsamendua "harreman gaiztoetatik" etor litekeen droga-kontsumoarekiko beldurrean oinarritzen da. Gazte nerabeen kasuan batik bat, tabako, alkohol eta bestelako drogak kontsumitzen hastea kalean, hor zehar, ibiltzetik etor daitekeela uste dute.

Hori guztiagatik, haur eta gaztetxoak dituzten guraso askorentzako, saihestu beharrekoa da seme-alabak "kalean ibiltzea". Kalea, jolas eta harreman gune librearen heinean, ontzat jo baino, balizko kalterako bide bezala baloratzen dute gurasoek. Kaletik babestea egokia dela da guraso askoren planteamendua. Babes eta zaintzaren beharra asetzeko modua litzateke beraientzat haur eta gaztetxoak eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan aritzea, kutsu akademikoa dutenetan zein aisialdiko taldeetan.

3.1.2. Aisialdiarekiko baloreak

Gurasoen aisialdiarekiko pentsamolde nagusi batzuk behin zehaztuta, goazen segidan gurasoek aisialdiarekin erlazionatutako baloreak mahai-gaineratzera.

Aisialdiari probetxua ateratzea. Gurasoentzat eskolaz kanpoko denbora libre, horrela uztea, libre, denbora galtzea dela baloratzen dute. Kontrara, eskolako zereginetan ez diharduten denboran, denbora librean alegia, antolatutako zerbaitetan aritzea positibotzat jotzen dute haur eta gaztetxoek gurasoek; hau da, era bateko edo besteko edukiak lantzeko hartu beharreko denbora litzateke aisia. Ez hori bakarrik; aisialdian kutsu akademikoa duten jardueretan parte hartzea, lehenago esandakoa berretsiz, etorkizunean ongizaterako (lanbide hobea) aukera gehiago ekarriko dietela pentsatzen dute.

Hortaz, ikuspegi sasi-ekonomizista batetik, denbora galera da aisialdian ezer ez egitea eta, horri kontrajarria, hau da, aisialdiko jarduera antolatuetan aritzea, nolabait, irabaztea edo aberastea.

Kirola egitea. Baloreen alorrean aurrera eginez, gurasoen baloreen azterketan nabarmen agertu den gaia izan da, esfortzua edo ahalegina, lana, konpromisoa eta talde harremanekin batera, guztiak beharrezkoak direla haur eta gaztetxoek heziketan. Haur eta gaztetxo horiek pertsona bezala osatuko badira, aspektu guzti horiek landu beharrean dira gurasoen esanetan. Hori horrela, bada jarduera

mota bat denak biltzen dituena: kirola. Kirola eginez, gaztetxoak esfortzua zer den ezagutzen dute, baita nahi den hura lortzeko norberak duena horretara jarri eta, konpromisoz, lana egin beharra ere. Gainera, kirol jardueretan, bereziki taldean egiten diren kirolean, besteekin bizi eta proiektu batean batera aritu beharra ezinbestekoa denez, talde harremanak esperimintatu eta lantzen dira. Aipatutako lan-
ketak direnez, hain justu, gurasoek seme-alabentzako beharrezkotzat jotzen dituztenak, aisialdian kirola egitea bera, haur eta gaztetxoentzako beharrezkoa dela delib^{er}atzen dute gurasoek.

3.1.3. Aisialdirako beharrak

Ondoren, GURASOEN BEHARRAK irudikatuko ditugu, hau da, gurasoek beraien seme-alaben aisialdirako dituzten nahiak.

Zentzuzkoa denez, gurasoek haur eta gaztetxoentzat dituzten nahiak, aisialdiarekiko daukaten pentsamolde eta baloreen arabera da. Horregatik, aisialdian asebetetzekoak, orain arte pentsatzen eta baloratzen duten hartatik eratorzen diren elementuak dira.

Jarduera ezberdinak probatu ditzatela. Guraso gisa, beraien beharretariko bat seme-alabei jarduera ezberdinak probatzeko aukera ematea da. Haur edo gaztetxo^{en} gogoak ere izango du zeresana, aurrera egin edo ez behin probatuta erabakitze^{koa} izango bada ere gehienetan.

Zeregina edukitzea. Era berean, gurasoek beraien seme-alabek aisialdian zeregina izatea nahi dute; hau da, nolabaiteko aktibitatea izatea eskolak beteta ez duten denboran. Gogoratu beharra dago, ezer ez egiteari egozten dioten esanahia eta balizko ondorioak. Aisialdiko zeregin horien barnean, bestelako aktibitateak izateaz aparte, kutsu akademikoa duten gaiak edo ekintzak lantzea nahi dute beraien seme-alabentzako. Bateko eta besteko, aisialdian modu antolatuan eskaintzen diren jardueretan arituz, telebistaren mamutik eta kaleko "arriskupetik" aldentzen dira gaztetxoak. Antolatutako aisialdiko jardueretan dagoen bitartean, haur edo gaztetxoa zainduta eta kontrolpean dagoen neurrian, seguru dagoela sentitzen dute gurasoek.

12 urtetik gorakoentzako ere bai. Esandakoetaz gain, beharrezkoa da gurasoen ustetan, 12 urtetik gorakoentzako antolatutako aisialdirako eskaintza zabaltzea. Adin horren ezaugarriak kontuan hartuz, berari zuzendutako behar beste jarduera eskaintzen ez dela uste dute, eta adin-jira horretako gazteekin lana egiteak etorkizunari begira lukeen garrantziaz jabetuta, premia hori adierazten dute aho batez.

3.2. ESKAERA BEREZITUAK

Haur eta gaztetxoentzako aisialdi antolatuari zer eska dakioken, eta, jada, zer eskatzen zaion guraso eta gaztetxo^{en} aldetik, horixe da atal honen aztergaia.

Dagoeneko badakigu gurasoek aisialdia zein ikuskeratik ulertzen duten, zein baloretan sostengatuta eta zein beharrei erantzuna bilatu nahian hitz egiten duten haur eta gaztetxoek aisialdiaz. Zalantzarik gabe, aisialdiaren arloko agente ezberdinei eskatzen dietena ulertuko badugu, orain arte antzemandako klabe horiek akuilu lana egiten dutenez, aintzat hartu behar ditugu.

Eskatzen den hartaz jakin nahian, eskaera nori egiten zaion kontuan hartuz bereiztuko dugu azaltzera goazena.

ESKATZEN ZAIO

- Aisialdiko jarduera bati
 - Gurasoek eskatutakoa
 - Hurrek eskatutakoak
- Aisialdi antolatzaileei
- Erakunde publikoei

3.2.1. Aisialdiko jarduerari eskatutakoa

Aisialdiari zer eskatzen zaion adierazterakoan, batetik, aisialdiko jarduerak bereak zein ezaugarri bete beharko lituzketen ezagutu nahi izan dugu. Gurasoen ikuspegitik, aisialdiko jarduera batek bete beharreko funtzioak liriateke:

- Haurra bertan gustura ibiltzea
- Probetxuzkoa izatea
- Zaindua egotea
- Euskaraz izatea
- Profesionalak direnen esku egotea

Bost ezaugarri hauek, gurasoen ustez, oso garrantzitsuak dira; horregatik, jarduera bat baloratzerakoan, edota seme-alaba bertan izena eman ala ez erabakitzerakoan, irizpidetzat hartzen dituzte.

- **Haurra bertan gustura ibiltzea.** Dena delako aisialdiko jardueratan haurra gustura ibiltzeko modukoa izatea eskatzen dute. Halere, ondo pasatze hutsa ez da nahikoa, edo hobeto esanda, ondo pasatzearekin batera, bestelako helburuak ere ipartzat hartu behar dira; besteak beste, jolasak, kideen arteko harremanak zein ekimena eta sormena haurrengan landu beharreko dimentsioak dira. Berezko ekimena eta sormena zirikatze eta suspertzeko saialdiak izatea beharko luke aisialdiko jardueren egiteko bat. Tarteetan daude ere, eta mimo handiz zaintzekoak izan behar lukete, pertsona edo kideen arteko harremanak, elkarkidetzaren aldeko urratsak izan daitezkeelarik aisialdiko bizipenak, jolasa edota bestelako ekitaldien bitartez.
- **Probetxuzkoa izatea.** Esandakoaz gain, gurasoen nahia da aisialdiko jarduerak zerbait ikasteko bidea izatea, eduki akademikoa duen zerbaitetan sakontzea dela, edo trebetasunen bat fintzea dela, baina zerbait ikastea.

Hartara, gaztetxoentzat aisialdia probetxuzkoa izatea nahi dute; zerbait jasotzea egiten duten horretatik; irabazi hitza zentzu oso zabalean ulertuta. (“...zerbait ikastea, abildadeak lantzea...”).

- **Zaindua egotea.** Bada beste funtzio bat aisialdiko jarduerak beteko luke tena: zaintza. Haur edo gaztetxo bat aisialdiko jarduera batean dihardue nean, gurasoak lasai daudela esan daiteke, bertan dagoen bitartean seme edo alaba zaindua egongo dela baitakite. Gainera, gurasoek esplizituki egi ten duten eskaera da, gaztetxoari kasu egitea, hain zuzen ere. Gaztetxoari ezer kaltegarrikerik gertatuko ez zaiola ziurtatzea da aisialdiko jarduera baten betetzeko bat.
- **Euskaraz izatea.** Eskaera sendoa da aisialdiko jarduera bati begira, jar duera hori euskaraz izatearena. Ezaugarri hau eskatzen duten gurasoen artean badira aldeak eta interesgarria da ikustea zer nolako soslai ezber dinak dituzten. Batetik, aisialdiko jarduerak euskaraz antolatu beharra erreklamatzan dute, gaztetxoaren gainerako esparrutan (familia, eskola, lagunartea) euskaraz bizi delako, eta aisialdiaren arloan gazteleeraz aritze ak komunikaziorako mugak ezartzeaz gain, lagunarteko giroa erdalduntze efektua eragiten duela pentsatzen duten gurasoek. Bestetik, beste gura so soslai bat da, izan ere ingurune soziolinguistiko ezberdinean bizi dena (zonalde erdaldunetan), nagusiki haurra D eredura bidaltzen duena ikas ten, baina eskolaz aparteko esparrutan euskaraz aritzeko nahikoa harre man sare ez duelako, euskaraz behar bezalako jariora lortzeko, eskolaz kanpoko jarduerak hizkuntza errefortzu bezala ulertzen dituen. Esan be harra dago, eskaera altuago egin duten gurasoak aipatutako azkenak izan direla. Bestalde, eskaera zehatz hori egiten dutenean antolatutako aisial di ludikoan ari dira pentsatzen nagusiki.
- **Profesionalen esku egotea.** “Profesionaltasuna” hitza gurasoen ahotik behin baino gehiagotan sortzen den hitza da. Dena delako jarduera profe sionalak edo profesionaltasunez arituko direnen esku egotea oso garran tzitsua da gurasoen ikuspegitik. Profesionaltasunak beraientzat duen ga rrantzia adierazten dutenean, ez dute esaten begirale edo arduradunek for mazio akademiko berezituren bat eduki beharko luketenik zeregin horietan jarduteko. Horren aurka ez daudela esan badaiteke ere, beraiek seriotasu naren eta erantzukizunaren pareko hartzen dute profesionaltasuna. Zera, utzikeria eta arinkeriarri kontrajarria legoke profesionaltasuna, eta bi ezau garri horiek ezin dute tokirik eduki aisialdiko jarduera batean.

GURASOEN ESKAERAK ETA HAUR EDO GAZTETXOENAK BAT AL DATOZ? Hau da, hurrek aisialdian asebate nahi dituztenak eta gurasoen nahiak jarduera ber dinetara al garamatzate?

HAURREN NAHIAK = GURASOEN NAHIAK?

HAURREK ESKATZEN DUTE:

DIBERTITZEA, ONDO PASATZEA
JENDEA EZAGUTZEA
TOKI ETA INGURU BERRIAK EZAGUTZEA
"DENA PARTIKULARRAK IZAN EZIK"

Gurasoek beraien seme-alabentzako nahi dituzten aisialdiko jardueren nola-kotasuna ezagutzen dugunez, pasa gaitezen, bada, haurrek aipatzen dituzten eskabideak azaltzera.

Ondo pasatzea. "Dibertitzea, ondo pasatzea", horiexek dira haurrei bat batean ateratzen zaizkien lehen aditzak. Hortaz, esan genezake haurrek ludikotasuna azpimarratzen dutela aisialdiko jarduera baten nahitazeko ezaugarrien artean.

Eskaera horren segidan, jendea ezagutzeko modua ere bilatzen dute. Aisialdiko jardueretan beraien adineko beste neskato-mutiko batzuekin harreman bidea edukitzea gustuko dutena da. Pertsona berriak ezagutzeaz gain, aisialdian toki eta ingurune berrietara iristea ere laket dute; irteerak eta txangoetan primeran pasatzen omen dute eta horiek sarritan egin nahi lituzkete gaztetxoek. Talde dinamikan parte hartu duten gaztetxoei jarri zitzaizen puntuetako bat beraiek eskolaz kanpo egiten zituzten jardueren zerrenda bat osatzea izan zen. Era guztietako aisialdiko jarduerak aipatu zituzten: ikastetxean bertan antolatutakoak zein ikastetxetik kanpo antolatutakoak, kirol jarduerak, jarduera kulturalak (dantza, musika, bertsoak...), eskulanak, etab. Guztiak mahai gainean jarrita, zer nahiko luketen egitea eta zer ez izan zen segidako galdera. Gaztetxo batek emandako erantzuna (eta gainerakoen adostasun osoa aurkitu zuena) "*dena, eskola partikularrak izan ezik*" izan zen. Benetan erantzun esanguratsua eta mamitsua. Erantzun hortatik ondoriozta daiteke gaztetxoek AISIA hitzarekin ulertzen dutena eta jatorrizko adiera bat datozela. Aisia denbora librean, askatasunez egiten dena da, baina plazerra edo gozamina ematen duena ere izan behar da. Era horretan, aisia beraiei egitea gustatzen zaizkienak egiteko denbora da; ikasketen kutsua duten ekintzak eginez ez dutenez gozatzen, ez dituzte aisiaren kontzeptuaren barnean kokatzen. Gurasoek aldiz, aisiaren jatorrizko esanahia eraldatuta daukate, beraiek kutsu akademikoa duten ekintzetan pasatzen duten denbora ere, gozamenekoia izan ala ez, aisiaren barnean sartzen baitituzte. Hortaz, gaztetxoentzako ez bezala, gurasoentzako gozamenaren dimentsioa ez da elementu erabakiorra aisia definitzerakoan.

3.2.2. Aisialdi antolatzaileei eskatutakoa

Aisialdiko jardueretan jorratzekoa izango litzatekeena behin aztertuta, gurasoek aisialdiko antolatzaileengan pentsatuta zer erreklamatzan duten ikusiko dugu. Aisialdian jarduerak antolatze zereginetan dihardutenei eskatzen dietena alegia.

- **Profesionaltasuna** da gurasoen eskaeratariko bat. Beraien lana, hau da, aisialdian haur eta gaztetxoekin lantzeko era guztietako ekintzetan, seriotasunez eta erantzunkizunez aritzea. Antolatzaileen formazioa ez dute zuzenean aipatzen, baina gaztetxoekin zertarako (helburuak), zertan (ekintzak) eta nola (bitartekoak) lan egin badakiten pertsonak izatea eskatzen dute gurasoek.
- **Ondo pasatzea ziurtatzea** ere antolatzaileen betebeharra litzateke gurasoen ustez. Baieztapen horren barnean kokatzen dute gaztetxoekin konektatu edo sintonizatze ahalmena edukitzea. Gaztetxoek nahi eta izateko eretara behar bezala hurbiltzen jakitea, gaztetxoek aisialdiko jarduera horietan egiten dutenarekin goza dezaten antolatzaileei eskatu behar zaiena da. Haur eta gaztetxoek nahietara moldatzea azken finean.
- Aurrerago aipatutako moduan, antolatzaileei luzatutako eskaera da **jarduerak euskaraz antolatzea**, ez dadin aisialdia izan gaztetxoak erdalduntzeko edo eskolaz kanpo euskaraz komunikatzeko oztopo.
- **Prezioari** dagokionean, eskaintza prezio egokian egitea da gurasoen beste eskaera bat. Esan beharra dago, prezioaren egokitasuna ez dutela berdin ulertzen jarduera formatiboetan (akademikoak) eta jarduera ludikoetan. Izaera formatiboa duten jardueren prezio altua denean (hizkuntzak, aparteko eskolak, etab), kalitatea erantzen diote jarduera horri, eta aldiz, prezio merkean eskaintzekotan, jarduerak behar bezalako kalitatea ez duela susmatzen dute. Berriz, izaera ludikoa duten aisialdiko jarduerak direnean (ludoteka, udaleku irekiak, etab), prezio altua onartezina iruditzen zaie, eta prezio baxua edukitzea da beraien ustez aproposena (dohainik izatea ere ez). Azken jarduera mota hauetan, prezioa ez da kalitate mailaren adierazle jarduera formatiboetan gertatzen den bezala.
- **Barietatea** litzateke, esandakoetaz gain, aisialdiko antolatzaileei zaintzea eskatzen dioten beste ezaugarri bat. Ekintzetan berritzen jakitea eta ez beti ekintza berdinen bueltan ibiltzen gaztetxoekin.
- Jarduerari buruzko informazio gehiago edo zehatzagoa edukitzea nahi luke ten galdetzerakoan, ezezkoarekin erantzuten dute. Jeneralean, gurasoei **oinarrizko informazioa** beti iristen zaiela antzeman daiteke eta, gainera, horrela izaten jarraitzea nahi dute, orain arte aisialdiko antolatzaileek beti igorri izan baitiete nahikoa informazio.

Jakinik aisialdiko jarduera guztiek, eduki ezberdinak lantzen dituzten neurrian, ez dutela izaera berdina, nolabait, aisialdiko agente ezberdinengan pentsatuz, beraietako bakoitzari eskaera propio edo berezitua egiten diote gurasoek.

Horrela, adierazi dituzten eskaera berezituak antolatzeko, lau multzotan bereizi ditugu aisialdiko agenteak:

- Kirol jardueren antolatzaileak
- Jarduera formatiboen antolatzaileak
- Aisialdiko talde hezitzaileak
- **Kirol jardueren antolatzaileei.** Kirol jarduerak antolatzeko ardura dutenei luzatutako eskaera berezitua da KONPETITIBITATEA SAIHESTEKO SAIAKERA berezia egin dezatela. Kirol jardueretan sarritan gaztetxoek lehia-giroa bizi dutela antzematzen dute, eta giro eta jarrera horiek benetan kaltegarriak direla pentsatzen dute. Horregatik, bereziki giro horren aurka egin beharra ikusten dute, eta zeregin hori, besteak beste, kirol jarduerak antolatzen dituztenen lana da.
- **Jarduera formatiboen antolatzaileei.** Gaztetxoen heziketa akademikoaren osagarri diren jarduera formatiboak antolatzen diharduten agenteei (nagusiki akademiak), seriotasuna eta profesionaltasuna eskatzen diete.
- **Aisialdiko talde hezitzaileei.** Aisialdirako jarduerak antolatzen dituzten aisialdiko talde hezitzaileei dibertimendua edo gaztetxoek ondo pasatzeko moduko ekintzak antolatzea eskatzen diete. Ez hori bakarrik, harremanak lantzeko eta giza baloreak sustraitzeko moduko ekimenak zaintzea eskatzen zaie agente hauei.

3.2.3. Erakunde publikoei

Azkenik, Erakunde publikoek haur eta gaztetxoentzako aisialdi antolatuari dagokionean, beraien ardurapean zein eginkizun hartu beharko luketen galdetu diegu gurasoei, ezin bestela izan, ikerketa honen jakinahietako bat izan baita hasieratik.

Hiru ardatzen ingurukoa litzateke, beraien ustez, erakunde publikoen egin-beharra.

1. Erakunde publikoek aisialdiaren arloaren SUSPERTZAILE gisa aritu beharko lukete; arloaren osasuna eta bizitasuna zaintzearen ardura hartu behar lukete beraien. Haur eta gaztetxoentzako zein eratako aisialdia eskaintzen den ezagututa, beharrak aztertuta eta agenteen berri edukita, arloaren akuilatze lana legokieke erakunde publikoei.
2. Erakunde publikoek aisialdiaren arloa suspertuko badute, era ezberdineko baliabideak eskaini beharko lituzkete gainera. Baliabide horien artean ekipamendu finkoen beharra guraso askoren ahotik entzun dugu. Haur eta

gaztetxoek aisialdirako bilguneak izatea, era ezberdinetako ekintzak egiteko aukerarekin, ezinbestekotzat jotzen dute zenbaitzuk. Adin-tarte bakoltzarentzat ekipamenduak sortzea eta funtzionaraztea erakunde publikoen eskutik etorri beharko luke.

3. Kezka handiarekin egindako eskaera izan da, erakunde publikoei hitz eginaz adierazitakoa, 12 urtetik gorako gazteen aisialdiari bereziki heldu behar zaiola dioena. Adin horretan dauden gaztetxoak aisialdi antolatuari dagokionean, hutsune batekin aurkitzen direla, eta ordura arteko aisialdiaren dinamika hautsi egiten zaiela diote. Guzti hori adin horren berezko ezaugarriei lotuz gero (gurasoetaz urruntzea, haustura urteak...), adin-jira horretan aisialdirako beraiantzako aukerak ez eskaintzea onartezina iruditzen zaie. Gainera, bereziki giza baloreak lantzeko adin aproposa delakoan daude, bizi-tzian zehar aurkituko dituzten bidegurutzeetan erabaki helduak hartzen laguntzeko.